

## Mila lagun askatasun eske

Manu Azkarate zuten gogoan ▶ 2



# Udalen «borondate falta» salatu dute plataformek

**EGOERA** ▶ Ezker abertzaleak «atzerapausoak» eta «salbuespen egoera» salatu ditu

**URTEA** ▶ Udal hauteskundeetan urtemuga da gaur eta plataformak udaletatik kanpo daude ▶ 2

**ALBIZTUR** ▶

## Barriola, Goñi eta Lazkano hizlari

Pilotaz ariko dira Kultur Astean ▶ 5

JAIONE ASTIBIA



## Euskal Herri osoko 140 eho-ziri lanzale elkartu dira plazan igandean

**LEITZA** ▶ Bazkari herrikoian 275 lagun elkartu ziren; gaur, hitzaldia ingurutxoaz ▶ 7

**IBARRA** ▶

## Garagardo Festaren «giro bikaina» aipatu dute antolatzaileek

«Oso ondo» atera zela diote; parte-hartzaileei eskerrak eman dizkiete ▶ 6

**ALEGIA** ▶

## Josune Bereziarturen diapositibak ikusgai ▶ 5

**ZIZURKIL** ▶

## Irurzun, Arrospide eta Garmendia izan dira Biatloiko irabazleak

Guztira 25 kirolari izan ziren partaide maila ezberdinetan banatuta ▶ 4

**UDAKO ESKAINTZA**  
**Klaseak 12€**  
**ARALAR**  
 Informazio gehiago autoeskolan  
 Urdaneta, 28 • ORDIZIA  
 Tel.: 943 88 16 51

"... ez utzi biharko; etor zaitez gaur Estetikako Zentru Integral berria ezagutzera..."

Estetikako Zentru Integrala  
**Maite**  
 Calle Herreros - TOLOSA - 943 67 03 38

Tratamendu eraginkorra emaitzak nabari dira

## TOLOSA ▶

## ‘Bidaiatzeko aukerak’ Angel Cuerdorekin, gaur

Udaleko Gazteria Saileko Gazte Guneak hainbat hitzaldi antolatu ditu hilaren 25an, 26an eta 27an, eta ekainaren 1ean, 2an eta 3an. Bidaien eta emantzipazioaren inguruko saioak izango dira. Gaur, Angel Cuerto tolosarrak *Bidaiatzeko aukerak* izango ditu hizpide; oinez, bizikletaz, piraguaz eta beste-lako bidez bidaiatzean kon-tuan hartu beharrekoak aipatuko ditu, besteak beste. 20:00etan hasiko da hitzaldia, Kultur Etxean.

## TOLOSA ▶

## 1.000 lagunetik gora Azkarateren askatasun eske

1.000 lagunetik gora egin zuten bat herenegun iluntzean Manu Etxera plataformak deitutako manifestazio isilean. Herriko kaleak zeharkatu zituzten, Manu Azkarate preso tolosarraren askatasun eske. Sindikatuek (ELA, LAB, EHNE eta CCOO), alderdi politikoei (EAJ, EA, EB-IU eta Tolosa Bizirik herri platafor-ma), eta Elkarrri, Askatasuna Etxerak eta Segi elkarteek ba-bestu zuten ekimena. Gaixotasun larri batekin Alcalako espetxean dago Azkarate.



Plataformako kideak pankarta buruan eta herritar ugari atzean, Foruen etorbidetik igarotzean. HITZA

## TOLOSA ▶

## Musika Eskolako Perkusio taldea, gaur, Musikarian

Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolak antolatutako X. Musikariak aurrera darrai. Gaur, eskolako Perkusio taldeak eskainiko du emanaldia, 19:00etan, Pablo Gorosabelgo entzuegian. Larunbata bitarte, egunero egongo da zer entzun X. Musikariaren baitan. Bestalde, 2004-05 ikasturterako aurrematrikula zabalik jarraitzen duela jakinarazi dute Musika Eskolak: astegunetz, 10:00etatik 13:00etara eman daiteke izena bertan (943 65 15 93).

## TOLOSALDEA ▶ POLITIKA

## ERREDAKZIOA

Udal hauteskundeetatik urtebete pasatu den honetan, kritiko azaldu dira eskualdeko ezker abertzaleko hautagaiaik. «Aurrerapausorik ez» dela egon salatu dute, eta «borondate falta» leporatu diete egungo udal gobernuei.

## IÑAKI URKIZAR

UZTA PLATAFORMA (IBARRA)

## «Ez dugu ez deirik ez proposamenik jaso»



«Une honetan ez dugu inongo harremanik Udalarekin. Azkeneko bilera otsailean egin genuen, eta Udaletik ziurtatu zitzaigun hauteskundeak pasatu ondoren deituko zigutela, bilduko ginela, herriko hainbat gaitz hitz egin eta gauzak adosteko aukerak ikusten zizutela, eta planteamendu bat egingo zutela. Gaur da eguna oraindik ez deirik ez proposamenik jaso ez duguna. Hitzez parte hartzeko aukera izango genuela esan ziguten, baina gero ez da horrelakorik gertatzen. Aurrekontuak, adibidez: asteazken batean onartu bazituzten, aste bereko astelenean pasa ziguten haien proposamena. Hor ikusten da duten talantea: ez negoziatzeko ez aportaziorik jasotzeko aukerarik ez ziguten eman. Soluziobiderik ez dugu ikusten. EAJk eta EAK hitz polit asko esan zituzten udal hauteskundearen aurretik, baina urtebete ondoren ikusi da ez dutela inongo posizioamendurik hartu. Eroso daude, eta egoera honetan jarraituko dute. Ibarren ere alderdiek zer esan zain daude, eta haien mezuak jarraitzen».

## «Egungo Udal gobernuei borondatea falta zaie»

Udal hauteskundeetatik urtebete pasatu da, eta eskualdeko ezker abertzaleko hautagaiek «atzerapausoak» eta «salbuespen egoera» salatu dituzte

BERNARDINO OTAMENDI  
ABIAN (ORENDAIN)

## «Entzungor erantzun diete proposamenei»



«Aurrerapausorik ez da egon. Hasiera batean herri batzarrak egin ziren, eta hauek planteatuta koaren aurrean entzungor agertu ziren. Irekiak izango zirela esan zuten, baina benetako negoziazioak iritsi direnean ezinezkoa izan da ezer egitea. Informazioa jasotzen dugu, baina osoko bilurak guk parte hartu ezin dugun orduetan jarri dituzte. Irtenbidea oso zaila da. Bilerak egiteko lokal bat eskatu dugu, edo gutxienez udaletxean gelaxoren bat... eta erantzuna oso gogorra izan da; takila koskor bat gure papek izateko ere azkenean ukatu egin digute».

HECTOR ESPIN  
TOLOSA BIZIRIK (TOLOSA)

## «Hitza onartzen zaigu, baina ez bozka»



«Aurrerapauso handirik ez da eman. Udal Gobernuak proposamen bat aurkeztu zuen, beti ere legearen barnean; hau da, guri hitza onartzen zaigu,

baina ez zaigu bozka onartzen. Beraz, herritarren ordezkaritza hankamotz gelditzen da, eta guk hori salatu beharra daukagu. Dena den, hasieratik esan genuen herriaren alde lanean jarraituko genuela, eta orain eskaini zaizkigun baliabideak (lokala, diru laguntzak...) ezinbestekotzat jotzen ditugu. Injustiziek mahai gainean jarraitzen dute, eta salaketa egingo dugu; aldi berean, lanean jarraituko dugu eta proposamenak egingo ditugu injustizia horiek gainditu ahal izateko. Ardatza da guretzat herritarren hitza errespetatzea: emaitza batzuk daude, eta onartu behar dira; EAJk ez ditu 7 zinegotzi, legearen arabera bai, baina herriaren hitzaren arabera 6. Egon beharko luke ten dimisioen ondorioz sortzen diren bakanteen aurrean, badaude moduak guk betetzeko. Orain arte ez dugu proposamen jakinik egin haien erantzunik izana zelako, baina erantzunik zehatz bat egin dugu egoera hori gaitzetzeko. Ezin da bozka emaileen zati garrantzitsua baten iritzia alde batera utzi; uste dut Udal gobernuak, subjektiboki bada ere, hori barneraturik dutela, eta gobernu jardueran nolabait nabaritzen dela. Hori ikusten da urtebete ondoren egiten dugun balorazioan: gure iritziz, egungo Udal gobernu aurre-

koaren erabat jarraitzailea da, iniziatiba gutxi ikusten dugu».

JUAN MANUEL ERASUN  
ZARATE-ITZ (ZIZURKIL)

## «Beren borondatea bakarrik falta da»



«Begi bistakoa da atzerapausoak egon direla, batez ere herritartasunaren ikuspuntutik eta eskubideei dagokienean. Herritar sektore handi batek aukeratzeko eskubiderik ez izateak esan nahi du frankismoaren garaia bizi ditugula egunegun. EAJ eta EA legitimatzen ari dira hori, haiei ez dagokizkien zinegotziak eguneroko lanean ari direlako. Frankismoaren erabakien legitimitzailea EAJ eta EA dira gaur egun, Tolosaldean batez ere. Zizurkil ez dugu harremanik Udal gobernuarekin. Hasieratik utzi genien argi elkarlanean jardutea zela gure helburua eta, haiek alkatetza zuten, beren iniziatiba izan behar zela guri baldintza egokiak jartzea lan egiteko. Gaur da eguna oraindik gonbidapenik ez digorik egin; orduan hitzez hartu zuten konpromisoa, baina ez dira inoiz guregana zuzendu. Hitz egiteko prest gaude, baina herritarrek aukeraturako zinegotzien eskubideak errespetat-

tu egin behar dira. Esaten dute legearen aurka ezin direla joan, baina ez diegu hori eskatzen; legalitatearen barruan ere, uste dugu baztertuak izan garenok lan egiteko eskubidea badugula. Beren borondatea bakarrik falta da, mozorroa kendu behar dute; ez da nahikoa ados ez daudela esatea, egunero haiek praktikatzen dutenak balio baitu».

JOXE A. MINGEGIA  
AXURDARIO (LIZARTZA)

## «Gure proiektuak ari dira aurrera eramaten»



«Lehen bezala gaude. Zenbait bilera izan genituen, baina orain ez digute ezer esaten, ez dugu harremanik. Herriaren borondatea errespetatzea eskatu diegu hasieratik: 5 zinegotzi ateratu genituen, eta haiek 2. Une honetan ez aurrera eta ez atzera gaude; lan egiteko eskumenik eta askatasunik ez dugu. Guk genituen proiektuak aurrera eramaten ari dira, gauza berriak balira bezala. Ez dira herrian bizi, ez dira herriaren egoten, paper batzuk sinatzera besterik ez dira etortzen. Hutsuneak egongo dira etorkizuneko proiektu horiek betetzeko direnean ez dira berriak egongo».

FUTBOLA ▶

## Sailkapeneko bosgarren postuari eutsi dio Tolosak Mondragonen kontra maila onarekin irabazita (1-2)

Azken partidua irabaziz gero laugarren gera daiteke; Aretxabaletak galdu egin beharko du

### MONDRAGON ▶ 1

### TOLOSA ▶ 2

**Mondragon.** Calvo, Markel, Eldin, Argider, Iker, Arkaitz, Ekain (Larrañana; 64m.), Jon (Andoni; 73m.), Iban (Lopez; 54m.), Ander eta Jokin (Loiti; 58m.).

**Tolosa CF.** Mujika, Leiza, Laguarda, Ibai (Gaizka; 73m.), Gorka Aierbe, Lander (Blanco; 62m.), Elola (Lander 79m.), Ekaitz (Illunbe; 62m.), Orue eta Javi (Del Sol; 62m.).

**Golak.** 1-0: Lopezek (58m.); 1-1: Landerrek (67m.); 1-2: Blancok (72m.).

**Arbitroa.** Atorrasagasti. Txartel horiak: Mondragonekoei: Iboni eta Jokini. Tolosakoei: Laguardari.

#### I. ETXEBESTE

Igoera postuetatik urrun ziren bi taldeak, baina hala eta guztiz ere garaipen garrantzitsua lortu zuen larunbatean Tolosak Atxabalpen, Mondragon taldearen aurka jokaturako partiduan (1-2). Maila bikaina erakutsi zuten bi taldeek, eta erritmo bizian joan zen neurketa. Saillakoren nagusian bosgarren lekuan dira orain Etxeberria-

ren mutilak, eta denboraldia bukatzeko jardunaldi baten faltan, laugarren postua dute oraindik Tolosakoek jokoan. Larunbatean jokaturako du azken neurketa (Berazubín, Urolaren kontra 16:30ean). Irabaziko balu, eta era berean, Aretxabaletak galdu, lortuko luke laugarren postu hori. Bestalde, jubeniletatik etorrita sei jokalarari ditu Tolosak uneotan jokatzen, eta «oso ongi» ari dira.

ARETO FUTBOLA ▶

### Laugarren jarraitzen du Laskorainek sailkapenean

Asteburuko garaipena garrantzitsua izan da bukatzeko jardunaldi bakarria falta denean

#### I. ETXEBESTE

Ceramicas Nogales eta Laskorain taldeen arteko norgehiagoka izan zen larunbatean Urnietan, eta 3-4 irabazi zuten tolosarrek; denboraldi amaierarako jardunaldi bakarra geratzen denean, laugarren jarraitzen dute ikastolako jokalariek sailkapen nagusian.

Denboraldiko azken derbia zena erdipurdi jokatu zuen Laskorainek. Izan ere, hutsune handiak erakutsi zituen taldeak defentsan. Hala ere, uneoro markagailuan abantaila izateak asko lagundu zion tolosarrei garaipena lortzeko. Berazubiko porrota gogoan, oso motibatuta irten zuten Nogalesekoak kantxara, baina ezin izan zuten punturik eskuratu Laskorainen aurrean. Altunak, Beldarriak, Saldiasak eta Barriolak egin zituzten tolosarren aldeko golak, eta partiduko onena Domenetxe atezain tolosarra izan zen: «Urteko errebelazioa, Laskorainen garai bat markatu dezakeen atezaina bihurtu baita». Larunbatean jokaturako dute azken partidua Berazubín, Astrabuduaren aurka, 18:30ean.

ARETO FUTBOLA ▶

## Etxean lortutako azken garaipena, zaleentzat

4 - 2 irabazi du Hegoaldeko Ourenseren aurka; 'Zurri' agurtu dute kideek etxean jokaturako denboraldiko azken partiduan

#### IRATXE ETXEBESTE

Hiru puntuez gain, ez zuten besterik jokoan Hegoaldeko Ourensek larunbateko partiduan, eta neurketa lasaia eskaini zieten neskek Berazubín bildutako zaletuei. Orohar, Hegoalde izan zen nagusi, eta hasiera-hasieratik erakutsi zuen etxeko azkeneko partidua bere egingo zuela. 4 eta 2 nagusitu ziren Amilibiaren eta Argoteren neskek Ourenseren aurka.

Lehen hamar minutuetan erabakita utzi zuen Hegoaldeko norgehiagoka. Nerea Salazarrek eginiko bi golei esker —bigarrena sekulakoa, defentsa lanean, zelai erdian, baloia lapurtu eta kontraerasoan baloia atezainaren gainetik loratzu barrura—, lasai jokatzeko adinako errenta hartu zuen etxeko taldeak. Ourensek bere lehen gola lehen zatia amaitu aurretik lortu izanare ere ez zuen jora hori aldatu. Galiziarrek lortzen zuten tarteka gol aukeraren bat sortzea, baina eginahal hutsalak izan ziren guztiak.

Bigarren zatian bere lekuan jarri zituzten gauzak Isa Barriok eta Miriam Aranak. Azkenak zelai erditik lortu zuen gola, atea hutsik zela, ordurako Ourenseko atezaina aurreratu zuela ari baitzen jokatzen erasoan. Hala jarraitu zuten

### HEGOALDE ▶ 4

### OURENSE ▶ 2

**Hegoalde.** Lurdes Zuriarrain, Itziar Aldezabal, Nerea Salazar, Isa Barrio eta Miriam Prados; Nerea Arana, Isa Blanco, Itxaso Martinez, Idoia Laguarda eta Miriam Arana. Entrenatzaileak: Virginia Amilibia eta Maite Argote.

**Ourense.** Dolores, Irene, Tati, Bea, Cecilia, Silvia, Pilar, Yenis, Pili eta Nati.

**Golak.** 1-0: Nerea Salazarrek (1m.); 2-0: Nerea Salazarrek (10m.); 2-1: Cecilialak (16m.); 3-1: Isa Barriok (21m.); 4-1: Miriam Aranak (30m.); 4-2: Piliak (35m.).

**Epaileak.** Aitor Garcia Fernandez, Jose Miguel Zabala eta Ohaya Diaz.

### SAILKAPENA ▶

#### Espainiako Ohorezko Maila.

Taldea	I	B	G	P
1. Femesala Elche	23	1	1	70
2. UCAM Murcia	17	2	5	53
3. F. Navalcarnero	14	4	7	46
4. Tecnocasa M.	13	2	9	41
5. Foticos Zarag.	12	2	10	38
6. Hegoalde	13	2	11	38
7. K. Fuenlabrada	11	3	10	36

galiziarrek bigarren zatiko azken minutuetan ere, eta Hegoaldeko neskek atzean bildu eta haien etorriari eutsi behar izan zituen. Ordura arte bezala, azken minutu horietan ere sendo aritu zen Tolosako taldea, eta larritasunik gabe lortu zuen emaitzari eustea.

#### 'Zurri'-ren agurra

Partidu amaieran emozioa eta poza izan ziren etxekoek artean. Emozioa, zaletuei denboraldiko azken agurra eskaini zieten jokalariek, eta aldi berean guztiek, zaletuek eta taldekideek, Zurri agurtu zutelako. Donostiako atezainak bere azken neurketa jokatu zuen Berazubín Hegoalderekin. Aretotutako goi maila uztera doa Lurdes Zuriarrain, izan ere. Sei denboraldi egin ditu taldean, eta denbor horietan asko eman dio Hegoalderi. Aurten, lesioak medio ez du nahi bezainbeste jokatzerik izan, baina denboraldi amaiera honetan minutu batzuk hartzeko moduan da, eta atzo berak zaindu zuen ia partidu osoan Hegoalderaren atea.

Denboraldiko azken neurketa asteburuan jokaturako du Hegoaldeko Andaluzian (Espainia), mailaz ez jaisteko borrokan ari den Nazaretren kontra.

### ASTEBURUKO KIROL EMAITZAK ▶

#### FUTBOLA

##### Jubenilak.

Segura-Inturre	3-3
Billabona-Aretxabaleta	6-4

##### Gorengo maila.

Mondragon-Tolosa	1-2
------------------	-----

##### Saillkapena ▶

1. Elgoibar	66 puntu
2. Berio	66 puntu
3. Zarautz	63 puntu
4. Aretxabaleta	58 puntu
5. Tolosa	56 puntu
6. Mondragon	55 puntu
7. Trintberpe	53 puntu
8. Hondarribia	52 puntu
9. Real Union	51 puntu
10. Anaitasuna	51 puntu

#### ARETO FUTBOLA

##### Autonomikoa.

Usabal-Buenebea	2-5
-----------------	-----

##### 2. maila.

Alegi-Axular	10-6
Aloña Mendi-Eskolapiok	5-2

##### 1. maila.

Antiguako-Laskorain A	3-5
Trans. Lacunza-C. Converters	6-2

##### 1. maila nazionala B.

Ceramicas Nogales-Laskorain	3-4
-----------------------------	-----

##### Emakumezkoen Kopa.

Idiazabal-Laskorain	1-3
Altzako-Tinta Billabona	10-1

##### Emaku. Ohorezko Maila.

Hegoalde-Ourense	4-2
------------------	-----

#### FUTBOL 7

##### 1. maila A.

Ikena-Ibarrako Gazte Asanblada	1-2
B. Ignacio Hondar-Lanbroa Dickens	4-4

##### 3. maila B.

Au da gure txokoa-Karlitz Ibarra	7-0
----------------------------------	-----

##### 3. maila E.

Northzone Bomborras-Bar Shanti Kirolak	4-6
--	-----

**HITZA,**  
**eskualdeko plaza**

Toki aproposa iragartzeko

**661 678 818**

Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

VILLABONA ▶

**Ipuin eta bertso lehiaketako sari banaketa gaur**

Villabonako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordeak, Villabonan ikasten duten edota ikasle billabonatarren artean idazteko trebetasuna sustatzeko, ipuin eta bertso lehiaketa antolatu zuen. Orain, irabazleen izenak jakinaraziko dira eta sariak banatuko dira gaurko prestatu duten ekitaldian. Gurea zinema bilduko dira idazle sariak 15:00etatik aurrera.

ZIZURKIL ▶

**Nairobitarraken proiektzioa gaur Atxulondon**

Maiatza Saltsanen baitan, ekintza ugari izan dira egunotan Zizurkilen. Larunbatean gau marokoarra izan zen, Bouhia taldearekin. Gaur, proiektzioaren txanda izango da. Tolosako Nairobitarrak kultur taldeak proiektzioa eskainiko du Atxulondo kultur etxean, *Miloi bat kilometro lur arras*. 20:00etatik aurrera kontatuko ditu taldeak haien abenturak.



Marokoar afarian, Bouhia taldeko dantzari egipziarrak. G. AZKUE

IRURA ▶

**Irura-Berastegi ibilaldia izango da igandean**

Urtero bezala, Irurako lagun talde bat, Berastegira joango da oinez, mendiz mendi. Ibilaldia datorren igandean izango da. Ibiltariak 9:00etan abiatuko dira igandean Irurako San Migel plazatik. Berastegira iritsitakoan bazkaria egingo dute. Kako jatetxean. Bazkarira joan nahi duenak izena eman behako du Irurako udaletxean osteguna baino lehen.

ZIZURKIL ▶ KIROLA

# Irurzun, Arrospide eta Garmendia izan ziren Biatloiko irabazleak

25 kirolarik hartu zuten parte proban; maila ezberdinetan banatuta, bizikletan eta korrika egin zituzten kilometroak

GARAZI AZKUE

Mikel Irurzun, Iratiz Arrospide eta Joxe Mari Garmendia izan ziren igandean, bakoitza bere mailan, Zizurkilgo VI. Biatloiko onenak.

25 lagunek hartu dute parte aurten, jada klasiko bihurtzen ari den Biatloian. Aurten ere hiru maila bereiztu dituzte proban. Lehenengo, 8 eta 12 urte bitarteko gaztetxoek egin zuten probako ibilbidea, bi kilometro bizikletan eta beste horrenbeste korrika. Talde honetan aurkeztu ziren probako neska bakarrak, beste adin tarteetan mutilek bakarrik hartu baitzuten parte. Lasterketako lehen neskaren saria Rakel Mendezek jaso zuen.

Bigarren adin tartea, 13 eta 15 urte bitartekoa zen. Hauek, hiru kilometro korrika eta beste hiru bizikletan egin behar izan zituzten.

Eta azkenik, helduen txanda iritsi zen: zazpi kilometro bizikletan eta bost korrika. Ondoren hamaiketako izan zuten parte-hartzaileak.



Argazkian, maila bakoitzeko hiru lehen sailkatuak. G. AZKUE

SAILKAPENA ▶

**16 urtetik aurrera.**

Izena	Denbora		Denbora
1. Joxe M. Garmendia	26:30	2. Julen de la Iglesia	14:43
2. Joxean Alberdi	27:20	3. Ioritz Pellejero	15:47
3. Pedro Mendez	27:30		

**13-15 urte.**

Izena	Denbora		Denbora
1. Iratiz Arrospide	14:20	1. Mikel Irurzun	11:55
		2. Aitor San Sebastian	12:05
		3. Unai Esnaola	-
		4. Rakel Mendez (lehen neska)	-

IRURA ▶ KULTURA



Gaixotzea ez da txantxa ikuskizuna. HITZA

## Igandean amaitu zen Irurako Kultur Astea

Partidak, Txapelketak, ikuskizunak eta afariak izan dira nagusi Kultur Astean

G. AZKUE

Igandean amaitu zen aurten Irurako Kultur Astea. Maiatzaren 15ean eman zioten hasiera egitarauari eta ekintza ugari antolatu dituzte aste guztian zehar.

Asteburu honetan izan dira ekintza gehienak, eta jende gehiena ere ekintza hauek bildu dute, «ekitaldi jendetsuenak astebururako zeuden iragarriak, eta orokorrean hala gertatu da», diote antolatzaileek.

Ostiralean ipuin kontaketan, 40 bat haur bildu ziren. Eta ondoren, Gilkitxaro talde-

aren *Elevator* antzezlanaren izan zen.

Larunbatean, xare txapelketa izan zen. Xake partidak ere jokatu zituzten ikastolan. Eta tabernen eta elkarteen arteko mus txapelketan Gazte Alaiak elkarrekin lortu zuten lehen saria. Arratsaldean, Denbora taldearen *Gaixotzea ez da txantxa* ikuskizuna izan zuten 100 bat haur eta gurasok.

Orokorrean, asteburuan jende ugari ibili bada ere ekintzetan, kantu afari herrikoira «oso jende gutxi joan zen, aurreko urteetan baino askoz gutxiago». Eta igandean, abesbatzak izan ziren.

**Dia** SUPERMERTATUA  
OKABIO taberna  
Industrialdea • LEITZA  
Tel.: 948 51 07 31

**HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu**  
**943 30 43 46**  
Edozein keza, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai

ALEGIA ▶ INGURUMENA

# Diapositiba emanaldia Josune Bereziarturen eskutik

Alegiako Mendi Asanbladak antolatutako Mendi Topaketan egitarauaren barruan kokatzen da emanaldia

OLAIA ESKITXABEL

Hainbat ekitaldi antolatu ditu Alegiako Mendi Asanbladak, Mendi Topaketan egitarauaren barruan.

Gaur, Josune Bereziartuk diapositiba emanaldia eskainiko du Kultur Etxean; saioa 19:30ean hasiko da. Bertan, egin dituen eskalada saioetako argazkiak erakutsiko ditu beasaindarrak.

Mendi Topaketak datorren astelehenean, maiatzaren 31n, amaituko dira Mendi Asanbladaren diapositiba emanaldia-ekin. «Taldeak egindako irteeratako irudiekin batera ibilaldien inguruko azalpenak eskainiko dira», azaldu dute taldeko kideek.



Anboto mendira irteera proposatu dute iganderako. A.M.A

## Anboto irteera

Iganderako, maiatzaren 30erako, hileko azken igandeetan egiten duen moduan, mendi ir-

teera antolatu dute Mendi Asanbladako lagunek; Anboto mendira joango dira. Irteeran parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete ohiko lekuetan.

ALBIZTUR ▶ KULTURA

# Pilotarien hitzaldiak emango dio jarraipena Kultur Asteari

Abel Barriola, Mikel Goñi eta Anizeto Lazkano izango dira bertan

O.ESKITXABEL

Pasa den larunbatean, maiatzaren 22an, bertso afariarekin eman zitzaion hasiera Kultur Asteari.

Gaurko, hitzaldia antolatu dute; pilota kontuak izango dituzte hizpide Mikel Goñi eta Abel Barriola pilotariekin eta

Anizeto Lazkano entrenatzaile tolosarrak. Hitzaldia 20:00etan izango da Arkaitz elkarrean.

Ostiralerako, maiatzaren 28rako, beste hitzaldia bat antolatu dute; errenta aitortpenaren inguruko informazioa luzatuko du Aitor Berasaluze adituak. Hitzaldia, 20:00etan izango da Kultur Etxean.

Eta Kultur Asteari amaiera emateko ibilalditoxa proposatu dute iganderako, maiatzaren 30erako. Herriko mugak zeharkatuko dituzte 08:00etan hasita. Herriko plazatik abiatuta, Benta Berri, Santutxo eta Santa Marina zeharkatuko dituzte. Ondoren, hamaiketako izango da pilotalekuan.

VILLABONA ▶ UDALA

# Amasarako bidean parkea egingo du Udalak

Kutxak finantzatuta Basoa fundazioak egingo dituen lanen artean kokatzen da

O.ESKITXABEL

Basoa fundazioarekin hitzarmena sinatu berri du Kutxak; hitzarmenaren helburua «Gipuzkoako ingurugiro ondarea eta luraren biodibertsitatea aberastea» da.

Hitzarmenari esker, birpulpaketa edota baso-hobe-kuntza lanak egingo ditu Basoa Fundazioak; lan horiek, beti ere, Gipuzkoan kokatuko dira, hiri inguruko herrietako zonaldeetan, alegia. Lehentasuna dute, bestalde, herriko Alde Zaharretik hurbil eta herriarrentzat sarbide erraza duten zonaldeek.

Kutxak eta Basoa fundazioak sinatutako hitzarmenean aurrakusten diren proiektuen artean Zeraingo mehatze ingurua, Legazpiko Urtatza par-

kea eta Villabonan, Amasa auzorako bidean, egitekoak diren parkea zehazten dira.

## Legealdi honetako lana

Villabonako Udala Amasako bidean egiteko den parkeko lanak lau fasetan banatuko dira.

600 zuhaitz landatuko dira hasteko zonalde horretan basoa sortzeko asmoz (pagoak, gaztainondoak...) eta belarkara espezieak erretoko landare lurra berdinduko eta landatuko da ondoren. Horretaz gain, ibiltzeko bideskak egokituko dira; bertan, 1.400 urki landatuko dituzte.

Lanen aurrekontua 60.000 euro ingurukoa izango da; lanak legealdi honetan gauzatea aurrakusten dute.

ANOETA ▶ GIZARTEA

# Udalekuetarako izen emateko azken eguna

Begirale gisa aritu nahi dutenek udaletxera deituz eman dezakete izena

O.ESKITXABEL

Anoetako udalekuetarako, haurrek zein begiraleek izena emateko azken eguna dute gaurkoa.

Begiraleek bi aukera dituzte; udaleku irekiak daude, alde batetik. Hauek, uztailean 1etik 16ra bitartean izango dira 10:00etatik 13:00etara. Bestalde, uztailean 19tik 26ra aterpe batetan egingo den

egonaldian lan egiteko aukera dago. Bi aukeretako batetan interesa dutenek udaletxera deituz eman dezakete izena.

Lehen Hezkuntzako lehenengo eta seigarren maila bitarteko ikasleek ere gaur izango dute udalekuetan izena emateko azken eguna; horretarako Ikastolara edota udaletxera jo dezakete. Uztailean 1etik 16ra izango dira udaleku irekiak Anoetan.

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...



INMACULADA IKASTETXEA  
TOLOSA

## ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Erizaintzaren Laguntza
- Farmazia

## GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Radiodiagnostikoa
- Osasun Dokumentazioa
- Gizarte Integrazioa

AURREMATRIKULA-MAIATZA - Tfno: 943 67 36 29

## BERASTEGI ▶

## 'Autoestimaren garrantzia' hitzaldia, Gaztainondon

Hilaren 26an izango da Xabier Arrazolaren eskutik herriko jubilatuen elkarte

D. GIBELALDE

Xabier Arrazolak *Autoestimazioaren garrantzia* izeneko hitzaldia eskainiko du bihar, asteazkena, Gaztainondo jubilatuen elkarte. Jardunaldiaren helburua tresna psikologiko egokiak eskaintzea da, autoestima hobetzeko, zailtasunei baidakortasun handiagoz aurre egiteko, eta azken batean, hobeto bizitzeko.

Besteak beste, autoestimazioaren eragina, mundua beste modu batean ikustea... izango dira hizpide.

## IBARRA ▶

## Ostiralero, mus-tximista txapelketa Txairon

D. GIBELALDE

Berrito ere abian da ostiralero mus-tximista txapelketa Txairo kafetegian. Ohi bezala, egunean bertan, 22:30ean eman behar da izena eta jarraian txapelketa jokatzen da. Irabazleak bildutako diruaren %40a jasotzen du; bigarrenak %30a; hirugarrenak %20a eta laugarrenaren zat kafe osatua dago.

## IBARRA ▶ I. GARAGARDO AZOKA

# Ezusteko pozgarria

Garagardo Festa «oso ondo» atera dela azpimarratu dute antolatzaileek; «giro bikaina» nabarmendu, eta parte hartu duten guztiei «eskerrak» eman dizkiete



Lehen egunean, maiatzaren 13an, gainezka izan zen jangela. Asteburuan zer esanik ez. D. GIBELALDE



Pagadi eta Iraola, osteguneko ikuskizuneko une batean. D. GIBELALDE

DANI GIBELALDE

Zalantza eta ezinegon pika bat bazuten antolatzaileek Garagardo Festaren atarian. Lehen aldia zen horrelako zerbait antolatzen zutela, eta ez zegoen festak arrakasta izango zuela erabat ziurtatzerik. Halaber, baikorren ere nekez pentsatuko zuten Garagardo Festak horrelako erantzun ona izango zuela eta horrenbeste jende hurbilduko zela. Hala, balorazioa eginda, «erabat ona» dela baieztatu dute antolatzaileek.

Talde eta herritar ugari parte hartu du dena behar bezala ateratzeko. «Antolakuntza bikaina izan da lehen urtea izateko, oso ondo koordinatutakoa, eta hurrengo urterako bidea irekita geratu da».

Lagundu duten guztiei eskerrik eman nahi izan dizkiete

talde antolatzaileek. «Adin guztietako jendeak parte hartu du lanetan, bai gazte, bai heldu, bai adineko... gogotsu izan dira denak lanean. Era guztietako jendea konprometitu da».

Maiatzaren 13tik 16ra, festak iraun zuen bitartean, eguneko 50 lagunetik gora aritu ziren «izugarrizko lana» egiten. Antolatzaileek «oso pozik» direla erantsi dute, «herriko jendearen artean sortu den giroagatik». Aurreikusitako helburua bete dute, hain zuzen, «talde laguntzaileentzat diru laguntza txoa lortzea eta auzolanaren bitartez herri giroa bultzatzea».

Festan, jende uholdeari erantzuteko, garagardo, ukondo eta aukli gehiago ekarri zituzten egunero. Horren erakusle, ostegunean, «sukaldeko langileak apur bat gaindikatu geratu ziren, jende asko batera etorri baitzen afaltzera. Ukondo gehiago eskatu behar izan zituzten, eta hurrengo egunerako 200 aukli gehiago ekarri genituen». Garagardoa-ri dagokionez, «marka zehatz batzuetako garagardo gehiago ekarri behar izan ziren, amaitzeaz zeudelako». Orotara, ia 4.000 pitxar saldu ziren.

Kultur ekitaldiekin ere oso gustura dira antolatzaileak. Nabarmenezkoa, ezbaierik gabe, Jon Iraola eta Mikel Pagadizabalen *Rechace imitacion* ikuskizuna, jangela gainezka izan baitzen haien atezaldi barregarriak ikusten. Txalaparta festa ere ongi; larunbat eta igandeko haur jokotan gaztetxo ugari hurbildu zirena. Antolatzaileen esanetan, ez da zalantzarik: «Hurrengo urterako bidea irekita dago».

## IRAGARKI LABURRAK ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheko  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 50 37  
Faxa: 943 65 09 44  
e-maila: ernio@inmoernio.com  
www.inmoernio.com

**Tolosa.** Erremontari kalean, guztiz berritutako apartamentua, gazteentzako aproposa. 138.233 euro.

**Tolosa.** Agintari kalean, bi logela, sukalde, egongela eta komunak. Sartzeko moduan. Berokuntzarekin. 142.440 euro.

**Tolosa.** Erremontari kalean, bi logelako apartamentua saltzen da. Oso egoera onean dago. 159.268 euro.

**Tolosa.** Erremontari kalean, bost urteko eraikuntza berria apartamentua salgai. Berokuntza eta igogailuarekin. Adineko pertsonentzat

aproposa. 180.304 euro.

**Tolosa.** Laskorain kalean berritutako pisu ederra salgai; hiru logela eta balkoia. Garajea izateko aukera. 294.496 euro.

**Tolosa.** Larramendi pisu ederra garajearekin salgai.

**Tolosa.** Iurramendi auzoan, Sam-eko bi etxe atxi salgai, lorategi eta jardinekin. Ikustekoak! 450.759 eurotik aurrera.

**Ibarra.** Julian Gaiarre kalean. Berritutako etxebizitza salgai. Hiru logela, sukalde, egongela eta komunak. Berogailuarekin. Guztiz kanpoaldera.

**Ibarra.** Euskal Herria kalean hainbat etxebizitza salgai 185.713 eurotik aurrera.

**Usurbil.** Zentroan 60 m<sup>2</sup>. Etxe polita trastelekuarekin.

**Irura.** Duplex zoragarria salgai, trasteleku eta garajearekin. Terraza ederra.

**Berrobi.** Bi logelako pisu merkea. Toki lasaia. 141.839 euro.

**Beasain.** Logela bateko etxebizitza. 99.167 euro.

**Legorreta.** 88 m<sup>2</sup>. Ikusmen ederreko etxebizitza. Oso eguzkitsua. 153.258 euro.

**Alegia.** Hiru logelako pisu ederra

salgai, eguzkitsua eta dena kanpoaldera. Ikusteko modukoa. 155.061 euro.

**Lizartza.** Etxe ederra salgai herrian bertan. Erreforma egiteko. 171.288 euro. Sekulako aukera!

**Baserriak.** Baserriak aukeran ondoko herrietan: Asteasu, Tolosa, Tolosaldea, Bidania, Aia...

**Pabilioiak.** Aukera handia; salmantan eta alokairuan.

**Borda.** Salgai Urnietan.

**Alkizan.** Eraikuntza berriko azkeneko etxe bifamiliarra salgai.

**Peñiscolan.** Apartamentu ederra salgai, terraza ederrarekin.

LEITZA ▶ KULTURA

# Euskal Herri osotik etorritako 140 ehoziri lanzale plazan

Musika doinu desberdinek ez ezik, aldarrikapenek ere beren txokoa izan zuten Kultur Asteko lehen asteburuan



Ainara Roda pianojolea Leitzan eskaini zuen kontzertuan. JAIONE ASTIBIA

## JAIONE ASTIBIA

Igaro berri den asteburu hau ekitaldiz oparo joan da, berezietsuena igande eguerdian burutu zen II. Eho-ziri Lanzalen topaketa izan zelarik.

Euskal Herri osotik joan dako 136 eho-ziri lanzale aritu

ziren goiz goizetik lanean Karrapean: santurtziarrak, burlatarrak, azpeitiarrak... Eta adin guztietako eho-zirilariak ikusteko aukera izan zuen bertaratu zenak. Bakoitzak bere lanari adi, itxura, diseinu, tamaina guztietako puntillak erakutsi zituzten. Oso bitxia zen eho-zia-

riek elkar jotzean ateratzen zuten soinua entzutea. Esan behar da, Liñu Putzu elkarrekin antolatutako pesta hau herriko eragileak *Maxurrenea herrintza* lemapean urtean zehar burutzen ari diren ekitaldien barruan kokatu behar dela.

Bitartean, ingudearen soi-

nuak ere entzun ziren Izan ere euskal selekzioaren alde, koardrilen arteko herri kirolak jokatuz baitziren. Ikusle franko hurbildu zen bertara kirolariak animatzera eta txalotzera.

Ondoren bazkari herrikoia burutu zen Karrapean bertan. 275 bazkaldarrak, bereziki otordu horretarako suaren brasetan erretako axuriaz ase ziren. Bazkalondoa alaitzeko txaranga izan zen.

Bestalde ostiral gauetan Kariadeko Benta eta hurrengo egunean berriz, Ainara Roda leitzarra eta bere kideen musika emanaldiak burutu ziren. Bi ekitaldietara joan zen jendea hagitz gustura atera zen, bai Jon Maiak eta eskaini zuten ikuskizunagatik (bizikletaz ere ibili zen) eta bai pianoaren doinu leuna entzuteko aukera eta gozamen izateagatik.

Larunbat goizerako Mendibil mendi taldeak aurrikusita zuen Erakurrirako mendi irteera bertan behera gelditu zen, izena oso ume gutxi eman zutela eta.

Ostiralaz geroztik eta aste guztian zehar erakusketak desberdinak zabalik daude udal txeko areto desberdinetan. Bazar Aretoan dagoen Leitzako herriko etxe eta baserrien duela 30 urte eta egungo argazkien erakusketan, lehiaketa moduko bat egiten ari dira, izan ere argazkiek izenak estalita baitituzte eta joaten dena, nahi bada, izenak asmatzen saia daiteke han aurkituko dituen inprimakiak betez. Asmatzaileak, bat baino gehiago baleude zozketa egin eta, opari modura nahi duen argazkiaren aplazioa jasoko omen du. Hornek asteazken arterainoko epea izanen du.

## TELEFONOAK ▶

### LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun zentroa.: 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 69 24 23

**Berastegi-Elduain.** Medikua:

68 33 61

**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34

**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29

**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Lizartza.** Medikua: 68 20 77

**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Asunzio klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

**Villabona-Aiztondo.**

Anbulatorioa: 00 69 70

### GARRAIOAK

▶ Taxia: 67 04 20

### KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldiakaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttpa ald.: 948 631888

### EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

### GUARDIAKO FARMAZIA

**Gaur.** Olarreaga J., M.J. Iraola,

10, (Tolosa). 943 67 24 38.

Gimeno A. Elbarren, 52, (Leitza)

### TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldean\_public@tolosaldeko

hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.

villabona\_aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

**Anoetaldea.** 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

**Ibarraldea.** 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko-hitza.info

**Leitzalde.** 687 41 01 18.

## GIZARTEA ▶

# San Migel Aingeruak bi herriei bisita egin zien asteburuan

Aingeruaren irudiari ongietorria eginez, prozesioak eta mezak ere burutu zituzten

## J. ASTIBIA

Larunbatean arratsaldeko 18:00etan eraman zuten San Migel Aingeruaren irudia Leitzara. Biharamonean goizean 9:30ean berriz Aresora eraman zuten.

Aresoko nahiz Leitzako eliztarrek irudiari ongietorria egin zioten bi herri-sarreretan eta

ondoren prozesioan ibili ziren herrietako kaleetan barrena. eta meza bereziak egin zituzten.

Areson besteak beste, herriko plazan ekitaldi tiki bat ere burutu zuten.

Santu horren irudia Aralarreko Santutegian egoten da urte osoan zehar normalean. Baina ohitura denez, Nafarroa-



Aresoko herrian sartzen. JAIONE ASTIBIA

ko mendialdean, herriz herri erabiltzen dute. Leitzara, Santutegitik bertatik eramaten dute, gaua bertan egin eta Are-

sora, hurrengo egunean joaten da.

Irudi horrekin bidaian erabat apaiz bera ibiltzen da.

## iragarki laburrak ▶

### ALOKAIRUA

**Etxebizitza.** Ingeles familia batek etxe bat behar du alokairuan abuztuan, Tolosan edo Ibarren. 943 67 00 52/ 943 67 12 75

### GALDUTA

**Behorra.** Garate eta Zarate tartean behor bat galdu da. Beltzgorria da eta kopetean izarra du. 943 55 03 32

## AGENDA ▶

### ERAKUSKETAK

**Alegia.** Alejandro Gonzalezen lanak Jubilatuen tabernan hilaren amaiera bitarte.

**Tolosa.** Soto eta Zulueta lanak Lanbroa tabernan. Hilaren amaiera bitarte.

**Zizurkil.** *Sükrü Karakus* margolari turkiarraren erakusketa Atxulondo kultur etxean. Maiatzaren 30a bitarte.

### DEIALDIAK

**Albiztur.** *Pilotarien hitzaldia.* Gonbidatuak: Mikel Goñi, Abel Barriola eta Anizeto Lazkano. Arkaitez elkartean 20:00etan.

**Alegia.** Diapositiba emanaldia Josune Bereziarturen eskutik. 19:30ean, Kultur Etxean.

**Leizta.** *Ingurutxoaren lehen eta orain. Eta gero?* hitzaldia Aurreran; 20:00etan.

**Tolosa.** Bidaien inguruko hitzaldia eskainiko du Anjel Cuerdok Gazte Guneak antolatuta. Kultur etxean, 20:00etan.

**Zizurkil.** *Milio bat kilometro lur arras* diapositiba emanaldia Josu Iztueta eskutik. Atxulondo kultur etxean. 20:00etan.

### MUSIKA

**Tolosa.** X. Musikariaren barruan, Perkusio taldearen kontzertua. 19:00etan Musika Eskolako areto nagusian.

### ZINEMA

**Tolosa.** *Giro inesperado* filma ikusgai Leidorren 19:30ean eta 22:30ean. Gaur, ikuslearen eguna.


**Alegia.** *Poligono Sur* filma ikusgai bihar Gaztetxean. 21:30ean.

# Kulturaz blai asteburuan

**TOLOSA ▶** Hiru kontzertu izan dira: jazza Andreu Martinezekin, Musika Banda eta Hodeiertz eta Kanta Cantemus; ostiralean berriz, antzerkia izan zen



Goian antzerkiaren irudi bat eta Andreu Martinezen saioarena; behean Musika Banda eta Hodeiertz abesbatza. HITZA



### JOXEMI SAIZAR

**K**ultur ekitaldiez betetako asteburua izan da azkena Tolosan. Hasteko, ostiralean Yllana antzerki taldeak *Marionetas del pene* antzezlana eskaini zuen. Sarrera ona izan zen Leidor zineman eta ikusleek —emakumeak ziren nagusi— ederki pasatu zuten eszenatoki gaineko hiru aktoreek —batez ere bi gizonezkoek— esandakoekin eta erakutsitakoekin.

Hiru kontzertu —Tolosa Kup

festan izandakoez gain— izan dira asteburuan. Ostiralean Fronton kafetegian Andreu Martinezek jazz doinu atseginak eskaini zituen bere taldearekin batera. Larunbatean Tolosako Musika Bandak urteko egitarauko ohiko kontzertua eskaini zuen Musikaria astearen hasiera bezala. Kasu honetan Enrique Arostegi zuzendariordeak hartu zuen batuta. Azkenik, Hodeiertz eta Kanta Cantemus abesbatzek bere emanaldia egin zuten Santa Klara komentuko elizan.

**DENDA HAUEK Tolosaldeko HITZAren LAGUNTZAILEAK DIRA**  
Egin itzazu zure erosketak bertan

- Pottoko Haur Jantziak
- Nerea Lentzeria
- Mikel Izagirre Ileaipaintzaileak
- Iriarte Lentzeria
- Berezi Neurri Berezia
- Factory
- Elite Kirolak
- Bazar Amiano
- Kopibat
- Cid Bitxitegia
- Lizarribar Oinetakoak
- Arri Oinetakoak eta Konponketak
- Desgaste Oinetakoak
- Aralar Kirolak
- Muebles Garces
- Poxpolin Haur Jantziak
- Oski
- Garikano 1815
- Azpiko Arropa
- Amaia Lentzeria
- Kiara Bitxitegia
- Poxpolin Enmarkazioak eta Opariak
- Milar Electro-Hogar
- Imen Bitxitegia
- Pressto Tintoreria
- Oñativia Lurrindenda
- Elola Altzariak
- La Vasconia
- Axular Oinetakoak
- Iratz Erlojotegia
- Zumeta
- Elektrogailuak
- Arretxe Mertzeria
- Ugarte Bitxidenda
- Bitxilore
- Juan Luis Bitxitegia
- Ezenarro Leihokak
- Kantikak arropa denda

**HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELARREKIN %5\*-eko BEHERAPENA IZANGO DUZU ZURE EROSKETETAN.**  
Martxoetik ekainera  
**EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!**

\*Promozio hau ez zaie beste beharapenei gehituko. Eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da.

## ZORION AGURRAK ▶



### URTE ASKOAN

Leire Urretabizkaia.  
Gaur 6 urte. Zorionak marketa. Etxekoan partetik.

# HITZA, zorion agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara  
(Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago.  
Mila esker!